

# Hizkuntza lidergoa ardura lanpostuetan

1

## INFORMAZIO OROKORRA

- Hizkuntza Prestakuntza arloa
- Modalitatea Aurrez aurrekoa
- Hizkuntza Euskara
- Iraupena 4 ordu (egun bakarrean)
- Ordutegia 09:00-13:00
- Ikasle kopurua 15
- Hartzaileak Ardura lanpostuetan jarduten duten EAEko herri-administrazioetako langileak.
- Irakaslea Elhuyar

- Dagokion administrazioak ordaindu beharreko matrikularen prezioa 152,25 €

AGINDUA, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jardura eta zerbitzuen prezio publikoen diruzenbatekoa ezartzen duena (uztailaren 8ko EHAA, 132. zk.).



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**



### Helburu orokorrak

- Euskarak, egun, administrazio publikoan jokatzeko duen rola eta dituen erronken ikuspegi zabala eskaintzea arduradun politiko eta teknikoei, eta duten arduratik euskararen normalizazioan eragiteko gida-lerro eta tresna nagusien berri ematea.
- Arduradun tekniko eta politikoek euskara-planaren kudeaketa jokatu behar duten rolaz jabetzea, ardura beren gain hartzeko eta parte-hartze aktiboa izateko.
- Euskararen normalizazioan lan-mundua (administrazio publikoak bereziki) jokatzeko duen rol estrategikoa jabetzea.

### Helburu zehatzak

- Arduradunek euskararen normalizazioa arautzeko duen marko juridikoa ezagutzeko eta barneratzeko eta hizkuntza-normalizazioaren inguruan gogoeta egitea.
- Ardura-postuetan dauden pertsonen hizkuntzen kudeaketaz gogoeta egitea eta beren hizkuntza-arduraz jabetzea.
- Arduradunak hizkuntzen kudeaketa erakundearen zuzendaritzetako eta zerbitzuetako kudeaketa orokorrean txertatzeko beharraz jabetzea.
- Arduradunek Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak (HOEI) barneratzeaz gain, haiek euren lantaldeetan zabaltzeko eta betearazteko ardura hartzea.
- Arduradunek euskara sustatzeko, nor bere diskurtsoa osatzeko, aberasteko eta josteko elementuak, gakoak edo ideiak partekatzea.

### Konpetentziak

Ikasleak prestakuntza-ekintza amaitzean jakingo du:

- Administrazioa hizkuntza-plangintzen marko juridikoaren eta metodologikoaren eduki nagusiak.
- 19/ 2024 Normalizazio Dekretuari berriaren oinarri nagusiak.
- Soziolinguistikaren oinarriko kontzeptu batzuk.
- Euskara sustatzeko, nor bere diskurtsoa osatzeko eta aberasteko gakoak.



# 3

## PROGRAMA

### PROGRAMA

#### 1. Soziolinguistikako oinarrizko kontzeptuak

- Zer dira hizkuntzak?
- Hizkuntza hegemonikoak vs hizkuntza gutxituak.
- Euskararen biziberritze-prozesuaren gako nagusiak.
- Tesia: lan-mundua gako azken 45 urtetan hasitako bidea biribiltzeko.

#### 2. Euskararen ezagutza eta erabilera

- Ezagutza vs erabilera.
- Estres linguistikoa.
- Elebitasun simetrikoa.
- Ulermen-maila eta euskararen erabileraren aktibazioa; lehen hitza.
- Arnasguneak, ariguneak...
- Elebitasuna bermatzetik euskara erdigunean jartzera.
- Lan-mundua gako.

#### 3. Marko juridikoa

- Euskararen Legea, oinarrizko edukiak.
- 2024ko Normalizazio Dekretuaren oinarri nagusiak.
- Plangintzaldiak.

#### 4. Hizkuntza-plangintza administrazioan

- VII. Plangintzaldia: gidalerroak
- Plan Estrategikoa: KEMEN marko metodologikoa
- Hizkuntza-eskakizunak (HE) eta Derrigortasun-datak (DD)

#### 5. Erakundeetako euskararen plan estrategikoa.

- Hizkuntzen kudeaketa. Zeharlerrotasuna; zehar-gaia den heinean, noren ardura da hizkuntzen kudeaketa?
- Lidergoa: arduradun tekniko eta politikoak dira euskara-planen neurrien eta ekintzen erantzule eta betearazleak.





## 6. Hizkuntza irizpideak

- Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak (HOEI) zer dira eta irizpideen estrategikotasuna.
- Betetzearen eta betearaztearen garrantzia eta ardura. Betetze-mailaren segimenduaren garrantzia.

## METODOLOGIA

Metodologia teoriko-praktikoa izango da. Azalpen teorikoak banakako ariketa zein taldekako ariketekin tartekatuko dira. Ariketak adibide praktiko eta benetako egoeretan oinarrituak egongo dira. Saioak interaktiboak izango dira, eta hainbat euskarri eta baliabide erabiliko ditugu: ppt-ak, ikus-entzunezkoak, talde-lana...

# 4

## EBALUAZIOA

### Ebaluazioa

Ikastaroaren bukaeran saioaren balorazio kualitatiboa egingo dugu eta asebetetze-inkesta pasako diegu.

### Aprobetxamendua

Bertaratzea, gutxienez, % 80koa izatea, ikastaroaren ordu kopurua kontuan izanda.

### Ikastaroaren balorazioa

- Ikasleek asebetetze inkesta beteko dute.
- Irakasleak balorazio inkesta osatuko dute.

# 5

## OHARRAK

### Baldintzak

Beharrezkoa da posta elektronikoko kontu korporatibo bat izatea ikastaroa egingo duen pertsona identifikatzeko.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 5.1 d) artikuluan xedatutakoaren arabera, datu pertsonalak zehatzak izango dira, eta, behar izanez gero, eguneratuak. Hori guztia zehaztasun printzipioa betetzeko.

### Harremanetarako

[ikasivap@ivap.eus](mailto:ikasivap@ivap.eus)

### Ziurtagiri digitala

Ikastaroaren aprobetxamendu-ziurtagiria eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotakoan, *IVAPekiko izapideak / Ziurtatzeak* atalean sartuta.

